



LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

BANDOA

Azken hilabete hauetan larrauldar guztion ondasunen kontrako erasoak ugaritu egin dira. Gure parkeak, gure farolak, gure belardiak, gure eraikinak, borondatez egindako ekintzek sarriegi kaltetu dituzte.

Batzuetan kanpoko bisitariak izan dira apurketa hauen egileak, baina askotan, gure artean bizi direnak ere errudun izan dira.

Azken hauei Udaletik idatzi hau zuzendu nahi genieke, beraien ekintzen ondorioz hausnarketaren bat egiteko eskatuz. Dibertimendurako sorrarazten duten kalteak herritarrengan duen eragina, suertatzen diren arrisku egoerak edota gurasoei ekar diezaikeen kalte ekonomikoa adibide batzuk baino ez dira.

Horrelako zerbait egin baino lehen, ondorioetan pentsatzea baino ez dizuegu eskatzen.

Hausnarketa honek fruiturik emango ez balu, beste motatako neurriak hartzen pentsatzen hasi beharko ginateke.

Larraulen, 2019ko otsailaren 14an.

Larraulgo Udalak